



2014/2015ko SEASKAren AURREKONTUAREN ZEHAZTAPEN NOTA

2014/2015 ikasturteko aitzinkonduaren berezitasun nagusia 4,5 eguneko erritmo berriak markatuko du. Batetik herriko etxe edo herri elkargoetatik laguntzarik jasoko ez duten ikastolendako 30 000 €ko poltsa bat finkatzea proposatua da. Bigarrenik, Seaskak bere gain hartzen dituen bi urteko irakasleen kasuan, goiz erdi bat gehitzen denez, urtean 23.600 €ko gainkostu bat ukanen du. Azkenik, irakasle ordezkoek ordaintzen zaizkien kilometroen ordaina handituko da (+10 000 €) egun bat gehituko baita kilometroetan ere. Orotara, beraz 4,5 eguneko asteak 60 000 € baino gehiagoko eragina du gure aurrekonduan.

I) KARGUAK


A) LANGILEGOARI LOTURIKO GASTUAK : 1 014 000 € (+ 57 500 €)

Lerro honetan, Seaskaren langilegoari loturiko gastu guztiak aurkitzen dira, hala nola :

1 - Mugagabeko postuak (CDI) : 721 900 (+33 800 €)

Aurten bi aldaketa nagusi ageri dira. Batetik otsailaren 13an egin zen Ikastolen Kontseilu berezian, integratzaileko Seaskak duen aholkularitzan postu erdi bat emendatzea erabaki zen. Inklusioan den haur kopurua handizki handitzen ari baita.

Bestalde, postu erdi bat sortu da ere garbiketa eta Seaskako egoitza berriaren kanpo eta barneko artatzeak segurtatzeko. Ondorioz, behe-rago ikusiko den gisan, garbiketarako erabiltzen ziren kanpo zerbitzuak ez dira gehiago kontratatzen. Xalbador eta Piarres Larzabaleko belar mozteendako mutualizatzen da.



- 1.1 2 zuzendariak, orokorra eta hezkuntzakoa.
- 1.2 Seaskako administrazio saileko langilegoa : 2 idazkari eta 2 kondulari denbora osoz.
- 1.3 Garapenako arduraduna, Herri Urrats eta komunikazio animatzailea.
- 1.4 Aholkulariak : Seaskako pedagogi saileko langilegoak 4 aholkulari ditu. 2013/14 ikasturtean ere psikomotrizilariaren postua ez da bete ahal izan; ordez, kanpoko adituak aritu dira formakuntza lanean. Haur elbarrituen integrazioarako bi aholkulari ari dira denbora osoz.
- 1.5 Egun hiru formatzaile ditugu lehen mailako eta bigarren mailako irakasleen formakuntzaz arduratzen direnak. Horiez gain, lanpostu erdi baten heina betetzen duten lehen mailako erakasle talde bat ere formakuntzan ari da.
- 1.6 Garbiketa eta artatze langilea 16 orenez astean.
- 1.7 EHko langileak : Euskal Herriko Ikastolen Kooperatibarekin dute kontratua edo EHren gain dira (ez dira gure aurrekonduan)

2 - Erakasle lanpostuak (CDD) : 279 100 (+23 600 €)

Aurrekondu hau prestatzeko tenorean, oraindik ez dakigu zenbat irakasle postu ukanen ditugun Hezkuntza Ministerioarengandik. Behin behineko estimazio bat egin dugu, kondutan izanez erritmo berriak goiz bat gehitzen duela ordezkoen kasuan eta maiatza bukaeran Akademia Ikuskariarekin ukanen dugun bilkuraren ondotik zehaztuko dugula ekaineko Ikastolen Kontseiluako behin betiko txostenean agertzeko gisan.

3 – Lehendakariaren indemnitatzea : 13 000 (+ 100 €)

Azken urteetan bezala, aurten ere Seaskako lehendakariari indemniteteak eskaintzea proposatzen da, gehienik SMICaren hiru laurdeneko muga, 13 000 € (kargurik ez da pagatzen, ez baita soldata bat, indemnitete bat baizik). Ikus bozka.

B) KONTSUMOA : 15 500€ (+1 500€)

Arlo honetan Seaskari lotuak diren ibilmolderako gastuak aurreikusten dira. Elekrika eta ur gastuak gehixago izanen dira. Materiale erosketendako ere.

C) KANPOKO ZERBITZUAK : 54 600 € (-8 200 €)

Gorago erran bezala, garbiketarako aurrekontua zerbitzuetatik desagertzen da (- 9 000 €).

Uztaritze, Senpere, Lekornerekin batera aurten Ziburuko ikastolaren lurraren alokairu ordainketa Seaskatik egiten da (+500 €).

Gaineratekoan, ohiko gastuak aurkitzen ditugu; hala nola, materialari loturiko kanpoko zerbitzuak (fotokopiagailuaren crédit bail alokairu bilatzen da, dokumentazioa...).

D) BESTE KANPOKO ZERBITZUAK : 209 000 € (+9 000 €)

- Honoraires : Kondu azterlaritza, erakasle berrien dokumentuen itzulpenak.
- Ikastola aldizkaria, SeaskaZ eta beste agerkariak.

- Garapenaren aurrekontua berdin mantentzen da (Ate idekitzeak, Glisseguna, Olentzero Park, ikastolen garapen proiektuak laguntzeko).
- Xiba Euskaraz Bizi bertsolaritzak topaketen autobusak Seaskak ditu aitzinatzen ikastolentzat (ikus sartzeetan).
- 4,5ra pasatuz, lehen mailako ordezkoen bide gastuak azkarki igoko dira, desplazamendua egun bat gehiago gehitzen baita. Egundarrendan den taulatik abiatuz, 4 eguneko astearendako 40 000 € aitzinikusten baziren, 5 eguneko astearendako 50 000 € (+ 10 000 €).
- Federazioko langileen bide gastuak ez dira aldatzen, ez eta Parisera egin behar izaten diren bidaien gastuak ere ez.
- Posta eta telefono gastuak berdintsu (- 1 000 €).
- Kotizazioak : Euskal Herriko Ikastolen Kooperatiba eta Euskal konfederazioaren kotizazioak dira. EHLren kotizazioa emendatzen da gure ikasleen kopurua emendatzen den heinean.

E) ZERGA ETA BESTE : 4 000 € (-5 000 €)

Zerga desberdinei doazkien gastuak dira. Egoitza berrira pasatuz egokitu dugu.

F) SEASKAK EMATEN DITUEN DOTAZIOAK : 360 500 € (+44 160 €)

- (1) **Ikastolen garapenerako dotazioa 13 000 € (-1 960) :** gela berri bat idekitzean eta ikasle kopurua emendatzean emaiten den laguntza, finkatutako irizpideen arabera.
- (2) **Integraziorako dotazioa 50 000 € (=):** Integraziorako langileen ordaintzeko aurreikusten dena, Seaskatik ikastoletara bideratzeko. Integrazio Batzordeak kanpainaren bidez segurtatuko ditu.
- (3) **Lehen mailen ibilmolderako dotazioa 53 000 € (-1 600 €):** Ikastolen arteko elkartasunaren ildotik eta ikastolek funtzionamendurako 320 € haurnaka gutienez segurtatua ukan dezaten, Seaskak Herriko Etxeatatik gutiengo hori lortzen ez duten ikastolei laguntza ematen die. lazko hein bera atxikitzen da 320 €.
- (4) **4,5 eguneko erritmoa (+ 30 000 €):** Lehen urtea denez, oraino ez dakigu xeheki herriko etxe edo herri elkargoetatik zoin laguntza ukanen duten ikastolek. Laguntza gutien ukanen duten ikastolendako 30 000 €ko poltsa bat finkatzea proposatua da. Laguntza hori finkatzeko irizpide proposamenak Batzorde Eragileak egingen ditu abendura bitartean.
- (5) **Lizeoaren ibilmolderako dotazioa 54 000 €:** Lizeoek kolegioek baino sos publiko gutiago eskuratzen dutenez eta lizeoaren garapena laguntzeko, Seaskak berdintzen du tartea kolegioek eta lizeoak haurnaka laguntza bera jaso dezaten.
- (6) **Barnetegiari dotazioa 73 500 € (+ 6 000):** Lizeoko barnetegiarendako diru laguntza, kopuruen arabera. 2014/15 ean 51 ikasle baino gehiago espero dira barnategian.
- (7) **Egoitzari dotazioa (85 000 €):** proiektuen arabera egiten den emaitza.

G) BESTE EGUNEROKO KUDEAKETA ARLOKO GASTUAK : 21 000 € (- 2000 €)

Egutegi erosketak.

H) FINANTZA KARGUAK 53 120 € (-1 480 €)

Egoitza berriko lanen egiteko, Seaskak 1 500 000 € ko mailegu bat hartuko zuen. Seaskaren aurrekonduan, maileguaren interesen itzultzea agertu behar da, urtez urte apalduz joanen dena.

I) AMORTIZAMENDU ETA DIRU BAZTERTZEAK eta AITZINETIK FINKATU EMAITZAK : 350 000 € (=)

Seaskako bulego berrietan inbertsioa egin ondoren, inbertsio hori kontableki amortizatu beharra da (140 000 €). Horrez gain, bulegoko ekipamenduen amortizazioak (10 000 €).

Bestalde 2014ko Herri Urratsen etekinaren aurreikuspena egiten da, eraikuntzetarako atxikitzen dena.

II) DIRU ITURRIAK

A) IKASTOLEN PARTE HARTZEAK: 889 900 € (+27 500 €)

Ikastolek Seaskako aurrekontuaren finantzamenduan parte hartzen dute haur kopuruaren arabera. Iraileko sartze egunean ikastoletan izanen diren haur kopuruaren aurreikuspenen araberrako ordainketa galdeginen da. Heldu den ikasturte hastapenean 3236 haur behar genituzke.

Diru sartze hori hiru zatitan banatzen da, federazioaren ibilmoldea (160 €), ikastolen arteko elkartasuna (105 €) eta Euskal Herriko Ikastolen Kooperatibaren kotizazioa (10 €).

Parte hartze hori (275 € haur bakoitz) ber heinean da 1999 urtetik.

B) IBILMOLDERAKO DIRU LAGUNTZAK : 529 400 € (+10 400 €)

Lerro horietan aurkitzen ditugu :

- EEPk eman beharreko diru laguntza (2013an 25 000 € gutiago eman zituzten).
- Herriko Etxeek eta herri elkargoek Seaskari emaiten dituzten diru laguntzak.

C) BESTE PARTE HARTZEAK : 302 300 € (- 500 €)

- Herri Urratsek emaiten duen laguntza Seaskaren ibilmolderako eta eraikuntzetarako.
- Glisseguna, Olentzero Park eta SeaskaZ ko sponsorrak.

D) GASTUEN ITZULTZEAK : 191 360 € (+ 49 860 €)

- (1) Integrazio Batzordeak kanpainaren bidez ikastoletara bideratuko dugun dirua ekarriko digu. Gisa berean, joan den otsailean bere gain hartu zuen integraziorako aholkulariaren lanpostu erdiaren kostua, jakinez, Integrazio Batzordeak eginen duen kanpainaren irabazietara baldintzatua dela.

- (2) CFP, Seaskako erakasleen formakuntza egitura da ISLRF sarearen baitan (Bretoin, Okzitano, Alsaziar eta Katalanekin). Formakuntzen den irakasle kopuruaren arabera emendatzen da (+ 9 500 €).
- (3) Euskal Herri osoko ikastolen elkartasun kutxaren laguntza Seaskako egoitzaren mailegua ordaintzeko.
- (4) Seaskak egutegi, aldizkari eta XEB gastuen ordainketa aitzinatzen du, eta ikastolek itzultzen.

E) EGUNEROKO KUDEAKETAKO BESTE SARTZEAK 55 000 € (+ 10 000 €)

- Seaskak ukaiten dituen diru emaitzak (=).
- Seaskak hego Euskal Herrian ikastolen sarearen bidez saltzen diren egutegien sosa ukaiten du, emendatzen bat aurreikusten da (+10 000 €).

F) FINANTZAMENDU DIRU SARTZEAK : 3 000 € (- 1 000 €)

G) INBERTSIORAKO DIRU LAGUNTZAREN URTEKO ZATIA : 70 000 €

Kontseilu orokorrak 2013an 1 500 000€ko diru laguntza eman digu Seaskako egoitza berritzeko. Urtero diru laguntzaren zati bat urteko konduetan sartzen da, inbertsioaren amortizamenduaren erritmo berean. 2014/2015 ikasturteko zatia 70 000€koa da.

Aurrekonduaren arabera 2014/15ko ikasturtean 2 042 960 € sartze eta 2 081 720 € ateratze ukanen dugu; hots, 38 760 € ko defizita, urtean zehar izan daitezkeen aldaketak konduetan hartu gabe.